



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO  
ERREGISTRO OROKORRA  
REGISTRO GENERAL

2022 MAR. 11  
MAR. 11

SARRERA/ENTRADA 1669 IRTEERA/SALIDA .....

**Dokumentu mota / Tipo de documento:** Premiazko Legez Besteko Proposamena

**Nori zuzendua / Dirigido a:** Osoko Bilkura

**Izapidetze organoa/Organo de Tramitación:** Legebiltzarreko Mahai

**Talde parlamentarioak / Grupos parlamentarios:** Euzko Abertzaleak, EH Bildu, Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos-IU

**Data / Fecha:** 2022.03.11

**Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa:** Eusko Legebiltzarrak Amiantoaren Biktimen Konpentsazio Funtsa sortzeko Legeari emandako babesari buruzkoa. / Relativa al apoyo del Parlamento Vasco a la Ley de Creación del Fondo de Compensación de Víctimas del Amianto.


**Presaren justifikazioa / Justificación de la urgencia:** Beharrezkotzat jotzen da martxoaren 17an ponentzia-lanak hasi aurretik Eusko Legebiltzarrak amiantoaren biktimenzako Konpentsazio Funtsa sortzeari babesa ematea. / Se considera necesario remitir antes del inicio de los trabajos de ponencia el 17 de marzo el pronunciamiento de apoyo por parte del Parlamento Vasco a la creación del Fondo de Compensación para las víctimas del amianto.

Eusko Legebiltzarrak, azken hiru legegintzaldietan lan handia egin ondoren, aho batez bultzatu du hainbatetan Estatuan Amiantoaren Biktimen Konpentsazio Funtsa sortzea.

Horrela, aho batez onartu zen 2019ko maiatzaren 2an, Gorte Nagusietara lege-proposamen bat bidaltzea, euskal legebiltzarreko ordezkariak defenda dezan, funts espezifiko bat sortzeko, amiantoak eragindako lanbide-gaixotasunen bat aitortu zaien pertsonen nahiz amiantoaren esposizioetik eratorritako kaltea jasan duten pertsona guztiei eragindako kalteak osorik ordaintzea ahalbidetuko zuena.

El Parlamento Vasco, tras un arduo trabajo durante las tres últimas legislaturas, ha impulsado de forma unánime en varias ocasiones, la creación a nivel estatal de un Fondo de Compensación de Víctimas del Amianto.

De esta forma se aprobó por unanimidad el 2 de mayo de 2019 remitir a las Cortes Generales, para su defensa por parte de la delegación parlamentaria vasca, una Proposición de Ley para la creación de un fondo específico que permitiera tanto la reparación íntegra de los perjuicios ocasionados a aquellas personas que hubieran obtenido el reconocimiento de una enfermedad profesional ocasionada por el amianto como de toda persona que hubiera padecido un perjuicio resultante de su exposición.



Hori dela eta, Gorte Nagusietan, 2021eko apirilaren 13an, Eusko Legebiltzarrak bidalitako ekimena izapidetzen hasi ziren, gehiengo zabal batek babestuta.

Diputatuen Kongresuko ponentzia-lanak laster hasiko direla ikusita, eta sinatzen duten talde parlamentarioek izapideak ahalik eta arrakastatsuenak izatea espero eta nahi dutenez, betiere biktima horiekiko errespetuaren eta erreparazioaren ikuspegitik, honako legez besteko proposamen hau planteatzen da Osoko Bilkuran defendatzeko:

Eusko Legebiltzarrak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio errespetu dezala bidalitako proposamenaren espiritua, eta azkenean onartzen den arauak ez indargabetzea hasierako testua, ahalik eta adostasun handiena bilatuz biktimen eta haien familien berehalako erreparazioa lortzeko.

Eusko Legebiltzarrak erabaki du akordio hau Diputatuen Kongresura bidaltzea.

Por ello, el 13 de abril de 2021 se inició en las Cortes Generales la tramitación de la iniciativa remitida por el Parlamento Vasco con la toma en consideración siendo respaldada por una amplia mayoría.

A la vista del inicio en las próximas fechas de los trabajos de ponencia en el Congreso de los Diputados, y confiando y deseando por parte de los grupos parlamentarios firmantes, que la tramitación sea lo más exitosa posible, siempre bajo la perspectiva de respeto y reparación a dichas víctimas, se plantea la siguiente Proposición No de Ley para su defensa en Pleno:

El Parlamento Vasco solicita al Congreso de los Diputados que respete el espíritu de la propuesta remitida y que la norma que finalmente resulte aprobada no desvirtúe el texto inicial, buscando el máximo consenso posible con el fin de lograr la pronta reparación de las víctimas y sus familias.

El Parlamento Vasco acuerda remitir el presente acuerdo al Congreso de los Diputados.

EP-110

ELAZO

SU-135

EA-NV